

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2026ko martxoaren 28tik apirilaren 10era.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2026/04/01

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

- **Euskadiko Administrazioak. EUSKO JAURLARITZA (EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako salgaien errepide bidezko garraioaren eta garraio-agentzien sektorearen eraginkortasun mugatuko estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboaren 2026ko soldata-taulen aldaketa. **878 Xedapena- 5 or.**

2026/04/06

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.** Lan-hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2026ko martxoaren 23koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, hegaztien eta bestelako animalien etxaldeen hitzarmen kolektiboko 2026ko behin-behineko soldata-taulen onespena erregistratzen eta argitaratzen duena. **7798 Xedapena- 3 or.**

2026/04/07

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.** Lan-hitzarmen kolektiboak. Ebazpena, 2026ko martxoaren 23koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, gazte-erreformaren eta adingabeak babestearen Estatuko V. hitzarmen kolektiboaren batzorde paritarioaren akta erregistratzen eta argitaratzen duena. **7896 Xedapena- 17 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2026/03/28

- **GORTE NAGUSIAK.** Presako neurriak. Ebazpena, 2026ko martxoaren 26koa, Diputatuen Kongresuarena, honako hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 6/2026 Errege Lege Dekretua, martxoaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen baita

urriaren 19ko 20/2022 Legea, Memoria Demokratikoarena, Demokrazia defendatu eta aldarrikatzeko jardueragatik hildako edo lesio ezgaitzaileak izandako pertsonen aldeko aintzatespenari buruzkoa. [7124 Xedapena- 1 or.](#)

- **Ebazpena, 2026ko martxoaren 26koa**, Diputatuen Kongresuarena, honako errege lege-dekretu hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 7/2026 Errege Lege Dekretua, martxoaren 20koa, Ekialde Hurbileko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duena. [7125 Xedapena-1 or](#)
- **GARRAIOETAKO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIKO MINISTERIOA. Errepide bidezko garraioa.** TRM/282/2026 Agindua, martxoaren 25ekoa, honako agindu hauek aldatzen dituena: FOM/1190/2005 Agindua, apirilaren 25ekoa, takografo digitalaren ezarpena arautzen duena, eta FOM/2861/2012 Agindua, abenduaren 13koa, salgaien errepideko garraio publikoa egiteko eska daitekeen administrazio-kontrolako dokumentua arautzen duena. [7128 Xedapena- 3 or.](#)

2026/03/31

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Fakturatzeko prozesuak.** 238/2026 Errege Dekretua, martxoaren 25ekoa, Enpresaburuen eta profesionalen arteko nahitaezko fakturazio elektronikoen sistema garatzen duena eta azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamendua aldatzen duena. [7295 Xedapena- 23 or.](#)
- **Gizarte Segurantzza.** PJC/297/2026 Agindua, martxoaren 30ekoa, 2026 ekitaldirako Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta lanbide-heziketari dagozkien kotizazioen lege-arauak garatzen dituena. [7296 Xedapena- 41 or.](#)

2026/04/01

- **GOBERNUAREN PRESIDENTZIA.** Antolamendua. 260/2026 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, honako hau aldatzen duena: 1/2024 Errege Dekretua, urtarrilaren 9koa, Gobernuaren ordezkotzako batzordeak ezartzen dituena. [7343 Xedapena- 3 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.** Animalien osasuna. APA/300/2026 Agindua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez partzialki ondoriorik gabe uzten baita azaroaren 11ko APA/1288/2025 Agindua, zeinak ustiategiak konfinatzeko neurria ezartzen baitu hegazti-gripeagatik kutsatzea prebenitzeko eta kontrolatzeko, uztailearen 27ko APA/2442/2006 Aginduaren, hegazti-gripearekin loturik babes-neurri

bereziak ezartzekoaren, II. eta III. eranskinetan sartuta ez dauden udalerriei dagokienez. [7344 Xedapena- 2 or.](#)

2026/04/02

- **BARNE MINISTERIOA. Laguntzak.** INT/305/2026 Agindua, martxoaren 27koa, Toki-korporazioei laguntzak emateko prozeduran eta aurrekontuaren antolamenduan berezitasunak ezartzen dituen otsailaren 17ko 5/2026 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren esparruan (5/2026 Errege Lege Dekretua, otsailaren 17koa, Andaluziako eta Extremadurako autonomia-erkidegoetan bereziki eragina izan duten aurkako hainbat fenomeno meteorologikok eragindako kalteei erantzuteko premiazko neurriak hartzen dituen). [7439 Xedapena- 9 or.](#)

2026/04/04

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Espezialitate sanitarioak. Prestakuntza-programak. PJC/311/2026 Agindua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira larrialdietako eta emergentzietako medikuntzako espezialitateko prestakuntza-programa, prestatzen ari diren espezialistak ebaluatzeko irizpideak eta larrialdietako eta emergentzietako medikuntzako irakaskuntza-unitateen akreditazio-baldintzak. [7635 Xedapena- 66 or.](#)

2026/04/07

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Ondare nazionala. Erregelamendua. 261/2026 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Ondare Nazionala arautzen duen ekainaren 16ko 23/1982 Legearen erregelamendua aldatzekoa (martxoaren 18ko 496/1987 Errege Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori). [7823 Xedapena- 14 or.](#)
- **Zeinu-hizkuntza.** 262/2026 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Espainiako zeinu-hizkuntzako diplomak (DLSE) ezarri eta zenbait erregelamendu-mailako arau aldatzen dituen. [7824 Xedapena- 10 or.](#)

2026/04/08

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA.** Kantabriako Autonomia Erkidegoa. Hitzarmena. Ebazpena, 2026ko martxoaren 31koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren, Kantabriako Autonomia Erkidegoaren, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen eta Lan Istripuen eta Gaixotasun

Profesionalen Mutuen Elkartearen arteko hitzarmena, aldi baterako ezintasunaren eta osasun-asistentziaren kudeaketa hobetzeko. [7963 Xedapena- 21 or.](#)

2026/04/09

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Zigor Kodea. Prozedura kriminala. 1/2026 Lege Organikoa, apirilaren 8koa, berrerortze anizkunen arlokoa, zeinaren bidez aldatzen baitira 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa, eta Prozedura Kriminalaren Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretu bidez onetsitakoa. [7966 Xedapena- 6 or.](#)
- **Ekonomia soziala.** 1/2026 Lege Integrala, apirilaren 8koa, ekonomia soziala bultzatzekoa. [7967 Xedapena- 51 or](#)

2026/04/10

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Zigor Kodea. Prozedura kriminala.** Honako honen hutsegiteen zuzenketa: 1/2026 Lege Organikoa, apirilaren 8koa, berrerortze anizkunen arlokoa, zeinaren bidez aldatzen baitira 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa, eta Prozedura Kriminalaren Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretu bidez onetsitakoa. [8020 Xedapena- 1 or.](#)
- **Ekonomia soziala.** Hutsen zuzenketa, honako honena: 1/2026 Lege Integrala, apirilaren 8koa, ekonomia soziala bultzatzekoa. [8021 Xedapena- 1 or](#)
- **INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERIOA.** Industria Segurtasuna. Soinu-emisioak. 302/2026 Errege Dekretua, apirilaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baitira industria-segurtasunaren arloko zenbait erregelamendu-arau barne-merkatuaren larrialdietan erabiltzeko larrialdi-prozedurei dagokienez, eta aldatzen baita otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretua (212/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, aire zabalean erabiltzeko makina jakin batzuen ondorioz ingurunean sortzen diren soinu-emisioak arautzen dituen, aire zabalean erabiltzeko makinek igortzen duten aireko zarata neurtzeko metodoei eta informazio-betebeharrei dagokienez). [8023 Xedapena- 93 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2026/04/31

- **ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA.** 42/2026 DEKRETUA, martxoaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira gazteen emantzipaziorako Emantzipa programarako laguntzak. [1387 Xedapena- 14 or.](#)

2026/04/08

- **INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA.** 45/2026 DEKRETUA, martxoaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Dekretua aldatzen duena. **1482 Xedapena- 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2026/03/30

- **Ogasun eta Finantza Saila.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 153/2026 FORU AGINDUA, martxoaren 23koa; honen bidez, aldatu egiten da Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren uztailaren 26ko 1328/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baita 369 eredia «Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten eta ondasunen urrutiko salmentak eta ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezien autolikidazioa» eta hura aurkezteko modua eta prozedura zehazten dira. **I 359 Xedapena- 25 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2026/03/30

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 96/2026 Foru Agindua, martxoaren 9koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren eta ondarearen gaineko zergaren kudeaketan aplikatzeko. **1676 Xedapena- 1168 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2026/04/08

- **Batzordearen 2026/771 (EB) Exekuzio Erregelamendua, 2026ko apirilaren 7koa,** Osasun Datuen Europako Esparruko Kontseiluaren ezarpenerako eta funtzionamendurako beharrezko neurriak ezartzen dituena.**771 Xedapena- 5 or**

- **Batzordearen 2026/798 (EB) Exekuzio Erregelamendua, 2026ko apirilaren 7koa**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 910/2014 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena, funtsezko segurtasun-mailarekin bat datozen identifikazio elektronikoko bitartekoen bidez Europako nortasun digitaleko zorroetan erabiltzaileak urrutitik sartzeko erreferentziatzko arauetara eta zehaztapenera dagokienez, bai eta urrutitik sartzeko prozedura gehigarriekin ere, konbinazioak segurtasun-maila handiko baldintzak betetzen dituenetan. **798 Xedapena- 3 or**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....
MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO